

GIZAESKUBIDEAK
ESKUZESKULpuina

Amina eta Kokoro



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



EGILEAK:

Jon Arretxe, Tantirumairu Ikastola (Lesaka), San Miguel Eskola (Noáin / Noain), Otsonta Eskola (Saldias), Patxi Larrainzar IP (Pamplona / Iruña), CP San Francisco IP (Pamplona / Iruña), Auzperriko Eskola (Aurizberri), Argia Ikastola (Tudela / Tuter), Hegoalde Ikastola IP (Pamplona / Iruña), Larraintzarko Ikastetxea (Larrainzar - Ultzama), San Femin Ikastola (Cizur Menor / Zizur Txikia), Paz de Ziganda Ikastola (Villaba / Atarrabia), Ibarberri IP (Lekunberri), Lizarra Ikastola (Estella / Lizarra), Orreagako Ama IP (Garralda), Erleta IP (Leitza), Garces de los Fayos Ikastola (Tafalla), CP Gloria Larrainzar IP (Zubiri), Andra Mari Ikastola (Etxarri Aranatz), Arraiozko Eskola (Arraioz), Otsagabia IP (Ochagavía / Otsagabia), CP Marqués de la Real Defensa IP (Tafalla).

KOORDINATZAILEA:

Irati Goikoetxea Asurabarrena (Bizikidetzeta Atalburua)

EDIZIOA:

Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua
Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

© Gobierno de Navarra-Nafarroako Gobernua

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Horixe Diseño

ILUSTRAZIOAK: Itziar Goñi

GIZAESKUBIDEAK
ESKUZESKU *Ipuina*
2020



AURKEZPENA

Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak iaz abian jarritako **“Ipuina eskuz esku Giza Eskubideak”** ekimenak bigarren edizioa ondu du aurten. Zuzendaritza Nagusiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuak Giza Eskubideak ardatz hartuta, urtean zehar bultzatzen dituen proposamenetako bat da, **“Memoria duten eta Bakea eta Bizikidetzaz lantzen duten Eskolak”** programaren baitan garatzen denetako bat. Iaz abiatutako bideari helduz, aurten ere, Nafarroako Lehen Hezkuntzako ikastetxe ezberdinak izan dira Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira martxan jarritako proiektu honetako protagonistak.

2020ko azaroan zehar, 21 egun lektiboetan, jarraipena eman zaio batetik Jon Arretxe idazleak euskaraz hasitako ipuinari eta bestetik Isabel Hualde idazleak hasitako gaztelaniazko ipuinari. Egunero-egunero, ikastetxe bat arduratu da, zenbaitetan bi, ipuin-kate bakoitzari lerro batzuk gehitzeaz. Ipuinaren lanketa aitzakia polita izan da Giza Eskubideak ezagutu eta aztertzeke, irudimena, sormena, ideia trukea, eztabaida, adostea, irakurketa eta idazketa lantzeaz gain. Proiektu komun batek elkartu ditu Nafarroako txoko ezberdinetako ikasleak eta harro senti-

tzeko moduan dira egindako lanagatik, prozesu eraginkor batek emaitza zoragarria utzi baitu, abenturaz beteriko bi ipuin eder.

Guztira 47 ikastetxetako ia 1.900 ikaslek parte hartu dute 65 irakaslerekin batera. Iaz egin zuten bezalaxe, aurten ere, parte hartu duten irakasle arduradunek balioan jarri dute bai ekimena eta baita ikasleek jarri duten gogoia eta ilusioa ere. Beraien hitzetan jarduera hau gelan landu ahal izatea oso interesgarria izan da.

Sortutako bi ipuinak biltzen dituen ale hau, bildumako lehenengo bezalaxe, Nafarroako ikastetxe eta liburutegi guztietara iritsiko da gizarteari egindako lan polita erakusteko asmoz. Irakasleek, familiek eta gizarteak, oro har, Giza Eskubideen inguruko lanketa egiteko tresna egokiak izango dira hemendik aurrera bi ipuinok.

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak eskertu eta txalotu egin nahi du proiektu honetan parte hartu duten pertsonen azalduetako konpromisoa eta egindakoa mimoz, goxotasunez eta ilusioz egin izana. Orain, irakurle, zuri dagokizu irakurketarekin gozatzea eta irakurritakoa hausnartu eta partekatzea.

*Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia
2020ko abendua*





Amina
eta
Kokoro



Amina
eta
Kokoro



Nire izena Amina da, hamalau urte dauzkat eta familia afrikar baten baitan jaiotako lehenengo umea izan nintzen. Nire atzetik beste hainbat etorri ziren ia jarraian eta horrek lan asko ekarri zidan, zeren, etxeko alaba nagusia izanik, haiek denak zaindu behar izan nituen, eta horrez gain, gurasoei lagundu behar izan nien arrantzan, ehizan edo baratzeko zereginetan.

Afrikako herrirka batean bizi ginen, hondartza handi baten magalean. Eguneko nire lehen zeregina, nire anai-arrebak ernatzea izaten zen. Batzuetan, zerbait gosalteko aukera izaten genuen, baina ez zen hori egunero gertatzen... Arropa jantzita, nire anai-arrebak eskolara laguntzen nituen. Ez zen bide samurra izaten, arriskuz beteriko bidaia izateaz gain, zortzi kilometrotako ibilbide luzea egiten genuen oinez egunero.

Handik bueltan, gurasoak laguntzen nituen hainbat zereginetan. Itsasoa bare egoten zen egunetan, arrantzara ateratzen ginen. Ehiza garaian, aita eta biok oihanean barneratzen ginen. Baratze txiki bat ere bagenuen; ez zuen fruitu gehiegirik ematen baina, tira! Hura ere zaindu behar zen.

Egun batean, nire anai-arrebak eskolan utzi ondoren, herrixkara korrika nindoan bueltan, nire gurasoak arrantzara joateko esperoan bainituen. Egunero Karakoro ibaia gurutzatu behar genuen eta normalean ur gutxi eramaten zuen arren, goiz hartan basati, orroka zihoazen urak. Ibaia gurutzatzeko zubi zintzilikari ziztrin bat besterik ez geneukan eta azkenengo urteetan apenas euririk egin ez zuenez, zaindu gabe zegoen. Beldur izugarria neukan, ez bainuen oso ongi igeri egiten, baina gurasoak esperoan nituela eta, ibaiaren maila jaitsi zedin itxaron orde, gurutzatzea erabaki nuen.

Dardarka, lehenengo urratsa eman nuen, bigarrena, hirugarrena eta... zarata bat entzun eta PLAAAAAST!!! ibaira erori eta arrastaka eraman ninduen.

Ibaiak indar ikaragarria zuen eta oso beldurtua nengoen. Ibaitek ateratzeko heltzen nuen guztia apurtu egiten zen. Halako batean, ibaiaren bazterrean esnatu nintzen, eta ordurako eguzkia sartuta zegoen. Tripak oihu ikaragarria egin zidan, goseak jota nengoen. Baina lehenengo, gaueko piztietatik babestuko ninduen lekuren bat bilatu behar nuen.

Kilometroak eta kilometroak egin ondoren soinu arraro batzuk entzun nituen eta norbait korrika nire atzetik zetorrela sumatu nuen. Kobazulo bat ikusi nuen eta babes bila sartu nintzen. Barruan makil bat eta harri bat igurtziz sua egin nuen eta ehizarako tresnak prestatu nituen.

Gaua oso ilun zegoen eta ez nuen ezer ikusten, egia esan pixka bat ikaratuta nengoen. Kobazulotik atera, eta bat-batean, sasi artean soinu batzuk entzun nituen; momentu horretan, beldurtu eta korrika hasi nintzen. Harri batekin estropezu egin eta putzu batean erori nintzen, burua altxatu eta han topatu nuen Kokoro izeneko erraldoi bat.



Kokoro erraldoia ez zen erraldoi maltzurra, eskerrak! Nire laguna izan nahi zuelako hurbildu zen niregana, bera ere galdua zegoelako eta nire laguntza behar zuelako etxera bueltatzeko. Bion artean txalupa bat sortzeko materiala biltzea pentsatu genuen, horrela txaluparekin etxera bueltatzea errazagoa izango zelakoan. Materialaren bila joan ginen basoan zehar bakoitza bere aldetik, eta berriro ere galdu egin nintzen. Ibili eta ibili, bat-batean Kokoro ehizatu nahian zebilen pertsona maltzur talde bat zegoela ikusi nuen.

Haiengana korrika hurbildu eta esan nien:

–Mesedez, ez hil Kokoro!

–Guri erraldoi guztiak gaiztoak direla esan digute eta hiltzeko agindua eman digute –erantzun zion ehiztari batek.

–Nola dakizue denak gaiztoak direla? Nola dakizue Kokoro gaiztoa dela?

–Erraldoia delako! –erantzun zion beste ehiztari batek.

–Erraldoi guztiak ez dira maltzurak! Ez epaitu Kokoro, ez duzue ezagutzen!

–Badakigu, baina nire familiak jatekoa izateko nik lan hau egin behar dut, barkatu –esan zion ehiztari zaharrenak triste.

–Bai, baina Kokorok ez du errurik.

–Eta zer egin dezakegu?

–Kokoro zintzoa dela ikusteko proba bat egin dezakezue.

–Ideia bikaina da! –esan zuen ehiztari batek.

–Baina ze proba egin dezakegu? –esan zuen beste batek.

Orduan ehiztariekin elkartu eta hitz egin nuen proba zein izango zen erabakitzeko.

Proba zein izango zen erabakitzen ari ginela, gure inguruan soinu arraro bat entzun genuen. Ez genekien nondik zetorren, baina arriskua sumatu genuen. Gora begiratu eta hantxe zegoen... lehoiabar gazte bat, bere hortz zorrotzekin, larrua errosetez josia zuena.

Ehiztariak tiro egiteko prestatu ziren, baina Kokoro ehiztarien eta animaliaaren artean kokatu zen. Tirorik ez egiteko agindu zuen eta piztiari begietara begira geratu zen. Apurka-apurka lehoiabarrak atzera eman zituen pausoak eta bertako landaretzan galdu zen.

Ehiztariak, poz-pozik, oihuka hasi ziren:

–Kokoro! Salbatu egin gaituzu! Nola eskertuko dizugu guregatik egin duzuna?

Kokoro eta ni elkarri begira geratu ginen eta hitz bat bera ere esan gabe, zer nahi genuen ulertu genion elkarri: etxera joan. Halaxe esan genien ehiztariei. Ehiztari guztiak ados zeuden ehiztaririk zaharrena izan ezik.

–Baina Kokoro libre uzten badugu, guk ez dugu gure lana beteko, eta gu eta gure familia gosez hil gaitezke –esan zuen ehiztari horrek.

Eta Kokoro libre uztea justuena izan arren, besteeengan zalantza zabaldu zen.

Ehiztarien zalantzek Kokoro urduritu zuten, ez zuen ehizatua izan nahi. Oso urduri zegoenez, gerritik altxatu ninduen eta bere indar guztiekin sekulako oinkada eman zuen lurraren aurka lurrikara bat sortuz. Lurra mugitu, adarrak erori eta animaliak izutu ziren. Halako batean, adar bat ehiztarien gainean erori eta haren azpian harra-patuak geratu ziren. Momentu horretan, Kokorok bizkarean kokatu ninduen eta ihesari ekin zion.

Alde egin ondoren, konturatu nintzen ehiztariei lagundu behar niela, baina Kokorok, beldurra zuenez, ez zien lagundu nahi izan. Orduan ni bakarrik itzuli nintzen laguntzera eta Kokorok bere bidea jarraitu zuen. Ehiztariengana iritsi nintzenean, konturatu nintzen ezin niela lagundu adarrak pisu handia zuelako eta ezin nuelako altxatu.

Indar handiz saiatu arren, ez zegoen adarra mugitzetik. Orduan, lurraren mugimendu txiki bat nabaritu nuen,



eta atzera begiratzean Kokoro ikusi nuen hurbiltzen. Ehiztariekin tratu bat adostu genuen: ateratzen lagunduko genien, beraiek gu libre uzten bagintuzten. Onartu egin zuten eta adarra altxatu eta ehiztariak libre gelditu ziren. Baina bat-batean, ehiztari zaharrak niri begira jarri zuen bere eskopeta. Kokoro ohartu egin zen eta ni babesteko nire aurrean jarri zen.

Momentu horretan, beste ehiztariak Kokororen aurrean kokatu ziren babesteko asmoz; eskerrak! Ehiztari zaharrak, ordea, ez zuen atzera egin nahi izan eta, ihes egiteko, erraldoiak berriz ere oinarekin lurra jo eta lurrikara bat sortu zuen. Hain gogor jo zuen, zulo handi eta sakon bat sortu zuela. Kokorok, ehiztariak eta nik neuk zulo horretan behera bota genuen geure burua. Zulo hartan lurpeko bide bat zegoela konturatu ginen eta bide hori kobazuloraino iristen zela. Ehiztari zaharrak laguntza eskatu zuen eta berehala beste ehiztari batzuk agertu ziren. Zulotik sartu eta gure bila joan ziren.

Zuloaren irteeran beste hiri bat agertu zitzaigun. Hiri hura berria zen denontzat, inor ez zen sekula hiri hartan egona.

Hiriko kaleetan genbiltzala, elfo talde bat agertu zitzaigun. Oso haserre zeuden. Esan ziguten azken egunetan pertsonaia misteriotsu bat beraien janaria lapurtzen ari zela eta pertsonaia hura Kokoro zela uste zutela.

Gu saiatu ginen azaltzen ezinezkoa zela, Kokoro erraldoi zintzoa zela, niri eta ehiztariei laguntzen aritu zela. Beraiek ezetz esaten zuten, ez ziguten sinesten. Egoera itsusitu egin zen, elfoek mehatxatu egin gintuzten eta ehiztariak eta Kokoro urduritu egin ziren.

Orduan, korrika hasi ginen hiriko kaleetan barna, eta hegoekialderantz zegoen ate batetik ihes egitea lortu genuen. Ihesaldi horretan ni lurrera erori nintzen eta konortea galdu nuen. Kokorori esker lortu genuen denok bizirik irtetea eta nire kolpea sendatzeko oihanera joan zen landare batzuen bila.

Oihanean denbora luzez ibili ondoren, Kokorok behar zituen landareak aurkitu zituen. Nire egoera nahiko larria zenez, Kokorok erabaki zuen erraldoien druidarengana laguntza eskatzera joatea.

Druidaren etxolara iritsi zenean, bihotz oneko erraldoiak nire berri eman zion druidari. Eta orduan druidak esan zuen:

–Lasai! Amina sendatzeko edabea egingo dut. Akerrak okerrak, adarrak akerrak, okerrak, akerrak adarrak, okerrak...

–Zertan ari zara? Honek Amina salbatuko al du?

–Bai, noski! Hau erraldoiek milaka urtez erabili izan duten errezeta berezia da.

Errepikatu eta errepikatu, PLAST! Niretzako edabea prestatu zuen eta Kokoro lasterka abiatu zen nire bila.

Iritsi zenean, edabea eman zidan eta sendatu egin nintzen. Hori bai, espero ez genituen ondorioak izan zituen edabeak nigan. Bat-batean, nire gorputza handitzen hasi zen, handitzen eta handitzen. Ez duzue sinetsiko, baina erraldoi bihurtu nintzen!

Oso urduri jarri eta beldurra sentitu nuen. Orduan, nire familiaz oroitu nintzen, haiek baino askoz handiagoa izanik, ezingo nintzen etxean sartu. Triste nengoen eta lotsatuta, inguruko ehiztariek arraro begiratzen zidaten. Eiffel dorrea baino altuagoa nintzen. Eskerrak egoera hobetzeko lagun on bat neukan ondoan: Kokoro!

Nire lagun erraldoiak aitortu zidan berari ere gauza bera gertatu zitzaioela txikitan, hau da, nire tamainako



haur bat zenean edabe hori edan eta erraldoi bilakatu zela. Gainera, urteak zeramatzala bere tamainara bueltatzeko saiakeretan, baina ezinezkoa zela. Hori entzutean, ezin izan nion negarrari eutsi, eta elkar besarkatuz negar egin genuen lo geratu ginen arte. Bitxia bada ere, gau hartan amets berbera izan genuen Kokorok eta nik. Ametsean Egiptoko Sobek jainkoa agertu zitzaigun, hots, Nilo ibaia sortu zuen Jainkoa, eta ondorengoa esan zigun:

–Lur azpiko zulotik irten zaretenean El Cairo hirian azaldu zarete, Egiptoko hiriburuan. Zuen tamaina berreskuratu ahal izateko, Nilo ibaian dagoen animalia narrasti berde eta hagin zorrotzdun baten isatsean idazkera hieroglifikoz idatzirik dagoen papiro bat aurkitu beharko duzue. Papiro horretan edabe magikoa prestatu ahal izateko errezetaren lehenengo osagaia ageri da, eta baita hurrengo osagaia topatzeko pista garrantzitsu bat ere.

Esnatu ginenean, izandako ametsa elkarri kontatu eta egia ote zen egiaztatzea erabaki genuen. Nilo ibaira iritsitakoan, uretara begiratu eta suge handi bat ikusi genuen. Ohartu ginen papiro bat zuela isatsean. Gure auke-ra zen, berriro gure tamainara bueltatzeko edabea egiteko!

Konturatu ginen, narrasti handi hark ibaitik atera nahi zuela, baina ez zuela asmatzen. Hori ikusirik, ehizarako neukan soka narrastiari botatzea bururatu zitzaidan. Hortzekin heldu zion eta uretatik ateratzea lortu zuen. Sugeak asko eskertu zigun egin genuena, eta ordainetan, zer nahi genuen galdetu zigun. Isatsean zuen papiroa behar genuela esan genion eta esker onez eman zigun.

Bertan, Niloko ur tanta bat behar zela jartzen zuen. Beraz, ibaitik ur eskukada bat hartu genuen. Papiroaren atzean begiratu eta beste pista bat zegoela ikusi genuen.

Horrela jakin genuen hurrengo pista Egiptoko Keops piramidearen puntan zegoela. Lagun guztiak elkartu eta hara joateko prest azaldu ginen guztiok, baina oso urruti zegoela konturatu ginen eta bertara iristeko modua pentsatu behar genuela.

Ehiztari batek ideia on bat izan zuen:

–Kokoro, lehen egin duzun bezala, saiatu lurrean oinarrekin zulo bat egiten Keopsera iristeko.

–Oso ideia ona da hori! –esan genuen beste ehiztariak eta nik, denok batera.

Kokorok, aginduari jarraituz, izugarrizko kolpea eman zuen lurrean eta irekigune ikaragarria sortu zuen. Kokorok emandako kolpearen ondorioz, inguruko zuhaitzak erori zirenez, zuhaitz horien egurrarekin txalupa erraldoi batzuk egin genituen. Txalupak ziztu bizian egin behar izan genituen, kolpearen eraginez inguruko sumendiak erupzioan hasi zirelako.

Lur barneko urekin Kokorok egindako zuloa urez bete zenez, txalupa horietan Keops piramidera ailegatu ginen eta piramidearen puntan puzzle bat aurkitu genuen. Puzzlea egiten gau osoa eman genuen eta hau amaitu genuenean pasabide misteriotsu bat ireki zen. Bitan pentsatu gabe pasabidean sartu ginen. Pasabidean geundela, tranpaz beteriko leku ilun batekin topo egin genuen. Leku beldurgarria izan arren tranpak gainditzeko gai izan ginen. Bat-batean txirrista moduko batetik erori ginen eta Keopsen sarkofagora iritsi ginen. Sarkofagoa ireki eta momia bat aurkitu genuen. Momia handia zen, lotan urte asko zeramala zirudien, eta ezustean hitz egiten hasi zen!

—Badakit zeren bila zatozten, nire gorputza inguratzen duen paper bereziak emango dizue aurkitu nahi duen hori.



Hori esan eta Kokorok momia inguratzen zuen paper guztia bildu eta bertan aurkitu genuen hurrengo pista. Baita bigarren osagaia ere: tiarako bitxiak txikituz egindako hautsa.

Pista asmakizun bat zen. Eta hala zioen:

*“Zer dela eta zer dela
busoilak ziren
lan asko egiten zuten
txiroak ziren
eta pisu asko eramaten zuten”.*

Guztion artean asmakizuna pentsatu ondoren, erantzuna asmatu genuen. Guztiok aldi berean “esklabu” hitza esan genuen. Orduan, bat-batean paretak dardarka hasi ziren eta beste pasabide berri bat ireki zen. Zalantzarik gabe, bertatik abiatu ginen, baina beste pista bat aurkitu ordez, tranpa baten barruan geundela konturatu ginen.

Esklabu bihurtu ginen eta piramideak egitera behartuak ikusi genituen geure buruak. Sekulako bizi baldintza kaskarrak zituzten bertako esklabuek. Eta guk haiekin batera egin behar genuen lan. Eraikin arriskutsuak eraikitza behartuak zeuden, ezin zuten iritzirik eman, egunero mehatxu pila bat jasan behar zituzten eta agianduak

betetzen ez bazituzten latigoarekin zaskak ematen zizkieten. Gureak egin zuen!

Nola aterako ginen handik?

Lan eta lan aritu ginen, baina egoera zela eta Kokoro erabat haserretu zen. Ondorioz, hanka altxatu eta kolpe handi bat eman zion lurrari eta atea lurrera botatzea lortu zuen. Orduan, bertatik ihes egiten saiatu ginen, baina Egiptoko erregeak harrapatu eta kartzelara eramán gintuen.

Oso urduri geunden kartzelan geundelako, baina Kokoro gurekin zegoen! Asko pentsatu ondoren, Kokororen indarrarekin, isil-isilik kartzelako paretan zulo bat egin genuen. Zuloaren barnean geundela, beste pista bat aurkitu genuen eta oraingoan ahaleginak egin genituen tranpan ez erortzeko. Baina bat-batean, Egiptoko soldaduen soinuak entzun genituen.

Izutu eta zulo batean ezkutatu ginen. Soldaduen urratsak gero eta hurbilago entzuten genituen eta soldadu batek eskuan pista zuela ikusi genuen.

Ehiztari batek kartzelan soldadu baten jantzia aurkitu zuenez, jantzi egin zuen eta pistaren bila abiatu zen. Soldaduen artean sartu zen pista hartzeko asmoz.

–Zertan ari zara? –esan zion pista zuen soldaduak.

–Kapitainak orain nik eramateko esan dit.

–Ados, tori ba!

Ehiztariak pista hartu zuen eta ezkutalekura joan zen. Idazkian edabea egiteko errezeta osatzeko, soldadu baten jantziaren oihal zati bat behar genuela agertzen zen. Oso pozik jarri ginen dagoeneko jantzia baguelako.

Idazkian, gainera, jartzen zuen ordura arte aurkitutako pista guztien paperak elkartuz, atzeko aldean mapa bat ikusiko genuela eta mapari esker azken osagaia non zengoen jakingo genuela.

Oso urduri pista guztiak elkartu genituen eta buelta ematean... egia! Egiptoko mapa bat agertu zen eta X batekin markatua “Sahara” basamortua.

Dromedario batzuk hartu genituen eta basamortuan barneratu ginen. Ufff! ez genekien hain zabala zenik eta laster ura eta janari falta sumatu genuen. Batez ere, uraren falta. Bero handia egiten zuen, 55 gradu! Ez genekien zer egin. Orduan eskorpioi bat hurbildu zitzaigun eta ziztatu beharrean, oasi bat non zegoen azaldu zigun:



–Ibili zuzen ordubetez, gelditu, biratu eskuinera eta ibili beste ordubetez, gero berriro zuzen eta Bahariya izeneko oasi batera iritsiko zarete.

Eskerrak eman genizkion eta jarraibideei egin genien kasu. Bi orduz ibili ondoren, iruditu zitzaigun ez ginela iritsiko, sekulako egarria genuen! Orduan, denok hasi ginen elkar animatzen eta txistek kontatzen, denbora ahalik eta arinen pasatzeko. Eta, bat-batean, ur eta landareak ikusi genituen urrunean. Korrika hasi ginen, baina iritsi ginenean, ez zegoen ezer. Ohhhh, irudipen bat izan zen!

Orduan eskorpioia berriro agertu zen eta oso gutxi falta zitzaigula esan zigun. Iritsi ginen halako batean eta harrapatu genuen guztia jan genuen. Jan beharreko guztiak jan genituenean, edabearen azkeneko osagaiaren bila joan ginen. Ez genekien zer izango zen, baina eskorpioiak hala esan zigun:

–Azkeneko osagaia zuen baitan dago.


–Baina guk ez daukagu ezer! –esan nion nik etsita.

–Barru-barruan beti egoten da zerbait! Kasu egin zure bihotzari!

–Etxera itzuli eta nire familiarekin egon, besterik ez dut nahi!

–Ba orain arte eskuratutako osagaiak eskuan hartu, begiak itxi eta zure desiorik sakonenak ozen oihukatu!

Denek elkarri begiratu zioten eta borobil bat eginez inguratu egin ninduten. Eskuan nituen osagaiak. Ehiztariek eta Kokorok elkarri eskuak eman zizkieten eta beraien desioak ozen oihukatzen hasi ziren.



Lagun guztiok desio berarekin bat egin eta honela oihukatu genuen denok batera:

–ASKE MAITE, ASKE BIZI!

Halako batean, airean hareazko zurrunbilo erraldoi bat sortu zen eta lagun guztiok zurrunbiloaren barruan sartu ginen.

Eta une hartan, Kokorori tratu bat proposatu nion:

–Zurrunbilo honengatik bereizten bagara, hamar urte barru Karakoro ibaiko zubian elkartuko gara.

–Hamar urte? Nik lehenago elkartu nahiko nuke zurekin –erantzun zidan Kokorok.

–Ados! Ailegatzean, segituan elkartuko gara! Itxaron nazazu Karakoro ibaian.

Zurrunbiloan sartu eta gero etxera iritsiko ginela uste genuen, baina EZ! Kilimanjaro mendiaren puntan agertu ginen. Inoiz baino askeago sentitu ginen, Afrika osoa ikusten zen handik, zoragarria zen ikuspegia. Baina bat-batean lainoak sartu ziren, tximistak, trumoiak leher-tu ziren... Tximista batek Kokoro bete-bete harrapatu zuen eta Kokorok konortea galdu zuen.

Kokoro lurrean zegoen bitartean tximistak esan zidan:

–Bi aukera dituzu: Kokoro hiltzen utzi eta zu zure ohiko tamainara itzuli edo Kokoro salbatzeko erraldoi izaten jarraitu bizitza osoan.

Oso urduri jarri nintzen, beldurra, tristura... dena nahasian sentitu nuen. Sekula hartu beharko nuen erabakirik zailena izango zen hura, baina argi nuen ez nuela Kokoro hiltzen utziko...

Tximistari nire erabakia zein zen esan nion eta tximistak bihotz onekoa nintzela ikusita, Kokoro salbatu eta gainera, ni neure tamainara itzuli ninduen.

Kilimanjaro menditik jaisterakoan, ehiztariekin elkartu nintzen, baina ez nuen Kokoro inondik aurkitzen. Bat-batean sasi batzuen artetik mutil bat atera zen. Berehala jakin nuen Kokoro zela eta besarkada erraldoi bat eman nion.

Kokoro eta biok ehiztariengana itzuli ginen eta nire herrixkara joateko erabakia hartu genuen. Gaua egin zitzaigun arren, ehiztariek ondo ezagutzen zuten jarraitu beharreko bidea izarrei esker.

Gau guztia pasa genuen ibiltzen eta ibiltzen. Azkenean herrixka txiki batera iritsi ginen. Ez genuen ezer ikusten, dena oso ilun zegoelako. Gutxinaka-gutxinaka

etxe batzuk bereizten hasi ginen, baratzak, ibaia... Hura zen nire herrixka! Kokorori eskutik heldu eta ziztu bizian nire etxera joan ginen. Gurasoei eta anai-arrebei besarkada handia eman eta gero Kokorori nire etxean geratzeko eskatu nion eta berak baietz erantzun zidan.

Kokorok eta biok askotan kontatzen dugu gure abentura lagunek gure bizipenekin disfrutatu eta ikas dezaten.



